

Eguneroko eta besta egunetako janaria

L.: eguerdikoa hola, salsa. Hua iten zunan karrota ta lur-sagar eta, beti, haragia balin bazen, hua han inik saltsa at, salsa at, ua zunan aisetena denendako, geo noiztenka kusten gintinan ola (...), hak bear baitzien urina, saltsa berdura, saltsa. Geo, bestaburu zeait balin bazen, oillaxkoa goizian hil bear zinan, eh! Ez zunan han... Depotian ez zunan, eh! Ez zunan, frigoan ez zunan oillaxkoik, eh! Freskoa jaten zunan ba ordian. Oillaxkoa, ba, hua gue gurmandiza, oillo... Oillaxkoa balin bazen, oilloa lenik saldan zunan, oilloa saldan. Ama zenak iten zinan oilloa... Ba, ba, oilloa huna, alo, ta geo haekilan farzia, farzia, ah, hua maite gininan denek izigarri, ez ziakinak (...) zerekin iten zen, ez ziakinat erteko re ze haragi klaserekin iten zen, bana ikaragarri gauza fina. Oai ez dun, ez dun kusten alakoik, garbiki errain dinat nik. Ah hola, ta ordian ano xortaño at bazukenan seurrenik, ara, ezpaitzen bustitzeko doia.

E. : xerria ere hiltzen zinuten etxean?

L.: ah ba, ba, oh, ordian hanbeste... Ez zunan buxeriaat jiten al, nik kusi dinat beti bi xerri il tun gure etxean, bi zerri ederrak, zernai izanik, bon, berreun bat kiloik ez ,bena eun ta laatan oi kilo zeitek ez ba, animaleko tarroak, berdin bi urte zutenak, adinak zienak, ez geo urtekoak, zerriak inak, egonak, alo, (...), inak, zitziak ina, zingar ederrak, ba, ba, ori ba, ta dena urina artaik, olio, ba, olio ta ozpinaindako, entselada ta oriendako olio kartzan zunan, beti urina, zerria dena urina zunan erteko moldian, eta xeatzen zuelaik, urinak xeatzen zuelaikan, berza, animaleko berza, zernai izanik, berroita amar pintako berza betheik, boh, boh, hartan sartzen zinan sahetsiak eta guziak denak egosten baitzien, bo urinak, animaleko urinzioniak, dupiñetan, dupiña aundi batzuetan, denak han, denak iten zunan kontserbia urte guzikoa, ba, ba.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala